



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

INDEMNIZAZIOAK ETA LAGUNTZAK

Arautegia

Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua

12. artikulua

2.- *[Legebiltzarkideek]* Eskubidea izango dute orobat beren eginkizuna betetzeko ezinbestekoak diren laguntzak, frankiziak eta gastuen ordainak jasotzeko(...).

Lanarengatik eman beharreko indemnizazioei buruzko arauak

Mahaiaren 1991ko otsailaren 5eko erabakia, eta 2013ko martxoaren 12ko eta 19ko erabakiak, bidaia-gastuak zehazteari buruzkoak.

1. artikulua

Legebiltzarkideek eskubidea dute ordain ekonomikoak jasotzeko, arau hauetan aurreikusitako egoera, baldintza eta mugen arabera (...)

3. artikulua

Eskubidea izateko arau hauetan ezarritako ordainak jasotzeko, Legebiltzarreko Mahaiak aldeztu aurretik baimendu beharko ditu legebiltzarkideek Legebiltzarraren ordezkari gisa egin beharreko joan-etorri eta egonaldi guztiak.

